



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Autodeterminazioa eta
erabakitzeko eskubidea Euskal
Herrian. Kontzeptuen eboluzioa
mugimendu sozialen ikuspegitik**

Ander Vizán-Amorós

299-305 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.37>



Autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea Euskal Herrian. Kontzeptuen eboluzioa mugimendu sozialen ikuspegitik

Vizán-Amorós, A.
Parte-Hartuz ikerketa taldea
ander.vizan@ehu.eus

Laburpena

Lurralde gatazkei soluziobide emateko modurik ohikoena biolentzia izan da historian zehar. XX. mendetik aurrera, ordea, gatazka horiei modu baketsuan aurre egiteko mekanismoak sortzen dira, autodeterminazio eskubidea saiakerarik arrakastatsuen izanik. Honen erabilera, ordea, egoera kolonialetara mugatu eta nazio gutxituentzat oztopo ere bilakatu zen. Testuinguru horretan, erreminta berri baten jaiotza bizi izan dugu: erabakitze eskubidearena. Hasieran lurralde gatazkak konpontzeko gailu modura eta, ostean, aldarrikapen eta arazo ugari modu demokratikoan irtenbidea aurkitzeko mugimendu sozialen partetik.

Hitz gakoak: autodeterminazioa, erabakitze eskubidea, mugimendu sozialak, demokrazia, burujabetza

Abstract

Violence has been the most common solution to territorial conflicts throughout history. From the XXth century on, however, mechanisms arise to deal with these conflicts in a peaceful way, with the right of self-determination being the most successful trial. Nevertheless, its use was limited to colonial situations and became an obstacle for minority nations. In this context we have experienced the birth of a new tool: the right to decide. At first as a device for resolving territorial conflicts and, subsequently, from social movements to democratically resolve many demands and problems.

Keywords: self-determination, right to decide, social movements, democracy, sovereignty

1. Sarrera eta motibazioa (Formatu orokorra eta bibliografia)

Azken urteetan, Europa Mendebaldeko zenbait nazioek, Katalunia eta Eskozia kasu, egoera juridiko-politikoaren eraldatzeko prozesu politikoak gauzatu dituzte, autodeterminazioa edota erabakitze eskubidea oinarri izanda. Euskal Herrian ere, nahiz eta beste maila batean izan, mugimendu nazionalista indartsua dago, zeinak historikoki autodeterminazio eskubidea aldarrikatu duen eta, berriki, baita erabakitze eskubidea ere.

Azken kontzeptu hau berri samarra da eta garapen akademiko mugatua izan du eta, era berean, eztabaida soziala piztu du egungo gizartean. Horregatik, bereziki garrantzitsua da autodeterminazio eskubidearen eta erabakitze eskubidearen kontzeptuez eta bere ondorioez ikertzea. Lehenik, beharrezkoa da kontzeptu bat zein bestearen ezaugarri zein ezberdintasunak jakitea, erabakitze eskubideak autodeterminazioaren aurrean dakartzan berrikuntza posibleak aztertzea, bai eta bata edo bestea aldarrikatzearen ondorio juridiko-politiko (praktikoak) ikustea ere. Finean, erabakitze eskubideak autodeterminazioarekiko paradigma aldaketa suposatzen duen aztertzea.

Gainera, alderdi enpirikoan, Euskal Herriko mugimendu sozial soberanisten eboluzioa aztertuko da, aldarrikatzen duten kontzeptuari erreparatuz, hau da, autodeterminazioa edota erabakitze eskubidea aldarrikatzen duten ikusiz, modu horretan kontzeptu bat edo bestea asumitzearen ondorioak ikusiz lurraldetasuna, sakontze demokratikoa eta burujabetzaren alorretan.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak (Azpiatalak eta zerrendak)

XX. mendeko hasierara arte itxaron behar dugu autodeterminazioaren kontzeptua esplizituki jasotzeko. Lehenengo Europako esfera ezkertiarretan eta, ostean, Wilson Amerikako Estatu Batuen presidentearen ahotan, autodeterminazio eskubidearen ideia babestuz.

Bigarren Internazionalaren baitan auzi nazionalaz emandako eztabaida ideologiko garrantzitsuen ostean (akordiotara heldu barik), zenbait alderdi sozialistek bere egin zuten autodeterminazio eskubidearen defentsa, Londresen 1896ko uztaila eta abuztu bitartean ospatutako Nazioarteko Langile Sozialistak eta Merkataritza Batasunaren Kongresuan ikusi daitekeen bezala (Brownlie, 1970: 93). Gerora Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko lider izango ziren Lenin, zein Stalin, autodeterminazioaren aldeko jarrerak defendatu zituzten 1913 eta 1914 urteetan. Stalinek "Marxismoa eta auzi nazional eta koloniala"¹ izeneko saiakeran nazioek, autogobernuaz gain, sezesioa gauzatzeko eskubidea zutela defendatu zuen 1913an. Leninek, bere aldetik, 1914an "Nazioek autodeterminaziorako duten eskubidea"² argitalpenean ildo beretik jarraitu zuen.

Urte batzuk geroago, Amerikako Estatu Batuen Kongresuan, 1918ko otsailaren 12an, haren presidente Woodrow Wilsonen egindako diskurtsoan, bere Hamalau Puntuak defendatu zituen, Europako nazioek gerra eten zezaten eta kontinentearen berreraikitzea hasteko. Proposamen horien muinean autodeterminazio eskubidearen defentsa eta nazioarteko bakearen bultzada zeuden. Alta, Wilsonen diskurtso famatu horretan ez zion kontzeptuari berari aipu zuzenik egin, nahiz eta bere diskurtsoan autodeterminazio eskubidearen filosofia antzeman zitekeen, modu implizituan.

Hamarkada batzuk pasatu beharko dira, ordea, nazioarteko legedian aipatutako eskubidea jaso arte. Bigarren Mundu Gerra amaituta, 1945eko ekainaren 26an, San Franciscon Nazio Batuen Erakundea sortzeko oinarriak ezarri ziren, Nazio Batuen Gutunaren sinaduraren bitartez. Gutunak, lehenengo aldiz, nazioarteko estatus legala aitortzen zion autodeterminazio eskubideari bere 1.2. eta 55 artikuluetan.

Alta, bere garapenean autodeterminazio eskubide hari mugak ezarri zitzaizkion eta, praktikan, autodeterminazio-eskubidea testuinguru kolonialera eta Nazio Batuek proposatutako esparru juridikora mugatu zen (Cassese, 1995; López-Jacoiste, 2019; Urrutia et al., 2012).

Kontraesankorki, ez dira urriak izan deskolonizazioaren testuingurutik kanpo sortuko Estatu berriak. Hala eta guztiz ere, ez du ekarri nazioartean berrazterketa juridikorik, baina areagotu egin ditu autodeterminazio-eskubidearen egokitasunari buruzko zalantzak, prozesu deskolonizatzaileei soilik lotuta. Izan ere, XX. mendearen amaieratik aurrera, deskolonizazioari lotu gabeko prozesu emantzipatzaileak teorizatzeke eta praktikara eramateko saiakerak egin dira. Are gehiago, teorizatzen saiatu dira "autodeterminazio eskubidea erabili gabe ere, sezesio-prozesu bat ezar daitekeela, printzipio demokratikoa oinarri hartuta". (Urrutia et al, 2012: 64). Zentzu horretan paradigmaticoak dira Kosovo eta Canadá-Quebecoko adibideak. Quebec (1980 eta 1995eko erreferendumak eta *Clarity Act*) eta Kosovoren (bereziki, Nazioarteko Justizia Gortearen Iritzi kontsultiboa Kosovoren aldebakarreko independentziari buruzkoa) aurrekariak eduki teoriko garrantzitsuaren ekarpena egiten baitute autodeterminazio eskubidearen aplikagarritasunaz egoera ez-kolonialetan.

Testuinguru horretan, hain justu, erabakitzeko eskubidearen kontzeptua agertzen da. Autodeterminazioaren kontzeptuari ezarritako mugak ekiditeko, sakontze demokratikoaren indarra baliatuz. Horrela, erabakitzeko eskubidea, lurralde-gatazkei soluziobide emateko erreminta bezala, Euskal Herrian eman zen lehen aldiz, Ibarretxe lehendakariaren eskutik (Lopez, 2013). Geroago, informalki bere abizenez ezagutzen den Estatutu berrirako planean (hots, Ibarretxe planean) formalki jaso zen erabakitzeko eskubidearen kontzeptu hori.

¹ Vissariónovich, Stalin, I., «Marxismoa eta auzi nazionala», *Prosveshcheniye* 3-5, martxo-maiatza 1913.

² Ilich Ulianov, Lenin, V., «Nazioan autodeterminazio eskubideaz», *Prosveshcheniye* 4-6, apirila-ekaina 1914.

Kontzeptuaren egiletza aitortzea baino, egokiago litzateke kontzeptuaren zabaltzea errekonozitzea Ibarretxe lehendakariari. Izan ere, kontzeptuak aurrekari argiak ditu: Ipar Irlandako akordioak, aipatutako Quebec eta Kosovoko kasuak... eta Euskal Herrian bertan Lizarra-Garaziko Akordioa, Udalbitzak 2002an onartutako eskubideen karta, Loiolako akordio politikoa... (Nikolas et al., 2016)

Erabakitze eskubidea eta autodeterminazio eskubidearen harremanaz aritzean, eztabaida akademiko zein ideologiko garrantzitsua bizi izan dugu azken urteetan (ikus, tartean, Barceló et al., 2015; Bengoetxea et al., 2015). Maila akademikoan, honako kontzeptualizazioak aurkitzen ditugu, batik bat: autodeterminazioa berraiatzeko eufemismoa (Ezeizabarrena, 2017; Ruiz Vieytes, 2015); “*sezesio erabakitze (edo ez) eskubidea*” (Zubiaga, 2014); autodeterminazioaren “*eboluzio estrategiko-diskurtsiboa*” (Vilaregut, 2011: 190); eta badira autodeterminazio eskubidetik bereizten dituztenak ere (bertan oinarria duela ukatu gabe), Jaime López, kasu; finean, kategoria politiko berri bat, baita, “*neologismoa*” (López, 2011). Interpretazioen artean, ordea, elementu komuna dago: garrantzitsuena “*prozesuaren legitimazio demokratikoa*” da (Urrutia et al., 2012: 58). Sakontze demokratikoa da garrantzitsuena, arradikalismo demokratikoaren printzipioan zentratuta (López, 2011).

Eztabaidagaiaren egoera ikusita, ikerketa honek galdera honi erantzuteko xedea du: Zer ondorio ditu praktikan erabakitze eskubidea edo autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenak lurraldearen, sakontze demokratikoaren eta burujabetzaren ikuskerei dagokionez? Euskal Herriko mugimendu sozialek kontzeptuen zer erabilera egiten dute euren diskurtsoetan?

Galdera hauei erantzuna emateko bidean, honako helburu nagusiak agertzen dira:

1. Helburua: Erabakitze eskubidearen eta autodeterminazio eskubidearen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak aztertu, mugimendu sozial soberanistek euren diskurtsoetan egiten duten erabilera aztertuta.

2. Helburua: Euskal Herriko mugimendu sozial soberanistek autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena erabakitze eskubidearen aldarrikapenagatik aldatu duten (eta, eman bada, zer neurritan) konprobatu. Horretarako, Euskal Herriko mugimendu sozial nazionalista edo soberanistako parte gisa har daitezkeen aktoreen diskurtsoak analizatu, bai euren praktika politikoa aztertu ere.

3. Helburua: Demosaren kontzeptuan sakondu, komunitate politiko erakundetu gisa -eta nazioaren zein soberaniaren kontzeptuekin harremanetan jarri-, mugimendu sozialek euren diskurtsoetan auzi nazionalaz eta demokraziaz egiten dituzten loturak aztertuta.

3. Ikerketaren muina (Taulak, irudiak, formulak...)

Ikusi dugu erabakitze eskubidearen kontzeptua autodeterminazioaren kontzeptuari estuki lotua jaio dela. Autodeterminazioaren interpretazio liberaletatik jaiota (teoria liberal plebisitario edo demokratikoetatik, hain zuen; ikus, adibidez Beran, 1984; Gauthier, 1994; Philpott, 1995 edota Requejo, 2002), azkenean, erradikalismo demokratikoa deitu dugunaren ezaugarriak hartzen ditu. Bilakaera horrek interes handia piztu du Euskal Herrian, bai euskal nazionalismoaren ikuspegitik, bai parte-hartze demokratikoan sakontzeko interesa duten hainbat gizarte mugimenduen partetik. Ikus dezagun nola mugitzen den gaur egun erabakitze eskubidearen aldeko euskal mugimendua, Gure Esku mugimendua zein mugimendu feminista eta ekologistaren parte diren eragileak aztertuz.

Hasiera batean, erabakitze eskubidearen kontzeptua lurralde-gatazka bati soilik lotuta zegoen Gure Esku mugimenduan, nahiz eta berritasun batzuk agertzen ziren. Horien artean, bere lelo nagusian (*Herri bat gara; erabakitze eskubidea dugu; herritarron garaia da*) herri kontzeptuaren erabilera anbigua nabarmentzen da, nazio terminoa erabili Gabe. Baina are

garrantzitsuagoa da, eta egungo jarrera politiko berri batzuekin lotuta, herri hori hiru *demoi*³-tan banatzen da, hiru lurralde-erkidegotan, eta horietako bakoitzari erabakitzeko ahalmena aitortzen zaio.

Bere bilakaeran, eta erabakitzeko eskubidean sakontzean, Gure Eskuk beste mugimendu sozial batzuen ekarpenekin egiten du topo, diskurtsoa edukiz betetzen dutenak. Mugimendu feministak, adibidez, emakumeek beren gorputzen gainean erabakitzeko duten eskubidea aldarrikatzen du; sindikatuak erabakitzeko ahalmen handiagoa aldarrikatzen dute beren baldintza sozioekonomikoei dagokienez; mugimendu ekologistak hondakinaren kudeaketari buruz erabakitzeko eskubidea defendatzen du (besteak beste), eta abar. Herritarren parte-hartze zuzenaren bidez erabaki daitezkeen gaiak zabaltzen doaz, eta, neurri batean, lurraldearekiko lotura ia eskusibotik bereizten da erabakitzeko eskubidea.

Kontzeptuaren zabaltze hori nabarmena da Gure Eskun 2017tik aurrera. Hala egiazta dezakegu urte hartako dokumentu batean, "Herritarron Ituna" izenekoan. Eta horrela jarraitu du hurrengo urteetan ere, norabide horretako hainbat ekimenekin, horietako azkena "Hamaika Gara" izanik, 2020an. Bertan, aipatutako ideiak azpimarratzen dira, bere adierazpenean jasotzen den bezala: "*Gure bizitzetara eta gure komunitateari eragiten dieten gaietara buruz erabakitzeko eskubidea dugu*".

Kasu honetan, ordea, ez da Gure Eskuren ekimena bakarrik, gogoeta partekatu bera egiten duten hainbat mugimendu eta eragilek babesten dute, hau da, herritarrek edo komunitate politikoak tresnak behar dituzte eragiten dieten gai guztietara buruz erabaki ahal izateko, eta erabakitzeko eskubidea da horietako bat. Horrela, erabakitzeko eskubidea subiranotasunak gauzatzeko bide gisa ulertzen da, hau da, banakako zein taldeko emantzipaziorako tresna gisa. Ikus ditzagun adibide batzuk.

Horien guztien artean, Euskal Herriko mugimendu feministaren teoria eta praktika nabarmentzen ditugu. Ikuspegi horretatik, Bilgune Feministak subiranotasunaren -erabakitzeko gaitasun gisa ulertuta-, lurraldearen eta herritarren kontzeptuak garatzen ditu. Subiranotasunari dagokionez, honako hau dio:

"Subiranotasun feminista bizi nahi dugun bizitzaz erabakitzeko gaitasuna izatea eta horretarako behar dugunaren kontrola izatea da; ekoizpenaren eta ugalketaren kontrola gizarteratzea eta subiranotasunak hortik antolatzea."

Horrela, subiranotasuna prozesu indibidual zein kolektibo gisa ulertzen da, ez bakarrik lurralde batean errotua, baizik eta:

"Lurraldeari erreferentzia egiteaz gain, gure gorputzak gurutzatzen dituen subiranotasuna delako, gure buruaren jabe izateaz ari gara. Subiranoak izatea gure gorputzen eta harreman afektibo-sexualen jabe izatea da, osasuntsu egoteko bideak lantzea, geure kabuz erabakitzeko gaitasuna izatea."

Era berean, herritartasunaz hitz egiten da, baina pertsonen beharrak eta zaintzak herritarren betebeharrak eta eskubideen ardatz berri gisa kokatuz, eta horiek merkatuen premien aurretik lehenetsiz.

Egungo beste mugimendu garrantzitsu bat aztertzen badugu, pentsiodunena, ikusiko dugu pentsio publikoen sistemari, mendekotasunari, bakardadeari eta adinekoen zaintzari buruzko legeen aldarrikapenen eta eztabaiden ondoren, sistema sozio-ekonomikoaren erdigunean bizitza eta haren zainketak jartzeko ideia dagoela, eta ez kapitala (Fernandez, 2020). Elkarrekiko zaintzan oinarritutako gizarte baten beharra onartzen da norbanakoaren subiranotasunaren muga gisa, eta elkarrekikotasunean sakonduko duen subiranotasuna aldarrikatzen da.

³ Hiru erabaki-esparruen onarpen eta zilegitasun-aitorpen hori, ordea, urteetako eztabaida sortu du mugimendu soberanistaren barnean eta, oraindik ere, horren aurka dauden sektoreak aurkitu daitezke. Eztabaida horrek zerikusi handia du soberaniaren kontzeptuaren eztabaida gatazkatsuekin, burujabetza nazional eta herri-burujabetzaren artean (Zubiaga, 2017).

Erabakitzeke eskubidearen kontzeptua ere bere egin du mugimendu ekologistak. Duela gutxiko adibide bat jartzearren, Donostiako Zubietako erraustegiaren eraikuntzan izandako erreakzioak ikus ditzakegu, "hondakinen kudeaketari buruz erabakitzeke eskubidea" aldarrikatzen baitute. Ildo horretan, Erraustegia Erabakia plataformak herri-kontsultak antolatu zituen 2016ko urriaren 23an, kaltetutako herrietan, erraustegia eraikitzeari buruz erabakitzeke.

Aipa ditzagun, azkenik, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak antolatutako mobilizazioak, lehen aipatutako mugimendu asko biltzen dituen plataforma. 2020ko urtarrilaren 30ean, plataforma horrek greba orokorra antolatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, eta bertan aldarrikatzen zen "Euskal Herriko langileen pentsio-sistema publikoa eta pentsio duinak bermatzeko modurik onena erabakitzea" eta "gure lan-harremanen eredia erabakitzeke eskubidea, baita negoziazio kolektiborako esparru propioa ere, inolako esku-sartzerik gabe". Bestalde, Covid-19aren pandemiaren ondorioz sortutako osasun-krisiaren testuinguruan, plataforma horrek berak, 2020ko ekainean, *Lehenik Bizitza* izeneko mobilizazio bat antolatu zuen, eta honako hau aldarrikatu zuen: "*Gure erabakien jabe izan nahi dugu, gure bizitzak sostengatzeko eta hemen erabakitzeke*".

Mugimendu horiek guztiek badute zerbait komunean: gaur egungo praktika politikoak ordezkari demokratikoko legezko organoentzat gordetzen dituen gaiei buruz zuzenean erabaki ahal izatea aldarrikatzen dute. Guztien ustez, erabakitzeke eskubidea tresna demokratiko bikaina izan daiteke arazo eta aldarrikapen anitz bideratzeko. Hau da, autodeterminazioaren teorizazio liberal demokratikoa gainditzen dute, lurralde-arazoak bideratzeko tresna gisa, eta teorizazio erradikal demokratiko zabalago batera bideratzen dute, askotariko arazoak konpontzeko tresna erabilgarri gisa.

4. Ondorioak

Biolentzia izan da lurralde arazoak konpontzeko modurik ohikoena historian zehar. XX. mendetik aurrera, ordea, horiek modu diplomatikoagoetan konpontzeko moduak sortu dira, autodeterminazio eskubidea kasu. Alta, eskubide horrek baldintza oso murriztaileak ezartzen ditu kolonialak ez diren kasuetarako, eta ez da egokia beste aldarrikapen batzuetarako.

Hain zuzen ere, juridikoki autodeterminazio-eskubidera jo ezin zen kasu horietan hasi ziren teorizatzen lurralde-gatazka jakin batzuk konpontzeko beste formula batzuk. Autodeterminazioaren kontzeptutik abiatuta, eta demokraziaren kontzeptuan sakonduz, XXI. mendean erabakitzeke eskubidea agertzen da. Eskubide hori kontzeptu berri gisa definitu dugu, parte-hartze politikoari eta demokraziari lotuta.

Teorizazio berri hori arreta handiz jarraitu da Euskal Herritik, batez ere Kataluniako adibidearen ostean. Han bezala, erabakitzeke eskubideak eboluzionatu egin du, eta hori argi eta garbi islatu da Gure Esku mugimenduaren bilakaera berrian, beste mugimendu sozial batzuekin batera: erabakitzeke eskubidea ez da soilik tresna liberal-demokratiko berri bat lurralde-arazoak konpontzeko, baizik eta mugimendu nazionalistetako sektore batzuek prozedura erradikal-demokratiko berri gisa erabiltzen dute euren interesekoak diren arazo anitzak konpontzeko.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Autodeterminazioaren ulerkera klasikoaren eta erabakitzeke eskubideak sortzen dituen eskema berrien arteko eztabaidak ez dute amaierarik momentuz. Horrela, hurrengo urteetan bi kontzeptuek duten eboluzioa bereziki interesgarria izango da zenbait arlotan. Tartean, hauek identifikatu ditzakegu:

- burujabetzaren kontzeptua: parte-hartze demokratikoari lotuta agertzen da soberaniaren kontzeptua eta espazio baten gainean egiten duen irudikapena zabaldu egiten da, espazio hori lurralde zati bat izan daitekeelarik edo marko espazial txiki edo abstraktuagoak, hala nola, elikadura, gorputza bera, etab.

- lurraldearen kontzeptua eta erabakitzeko eskubidearen subjektua: lurraldearen kontzeptualizazioa ere zabaldu egiten ari da, abstraktuago bihurtuz. Horrela, ulertzeko modu klasikoagoan lurralde nazional bakar eta zatiezinetik (euskal zazpi lurralde historikoak), administrazio-barruti autonomoak dituzten hiru lurraldeetara pasa gaitezke. Eta ulerkera abstraktuagoan, gorputza bera edo erabakitzeko esparru zehatzak lurralde esparru berri bezala identifikatu daitezke.

Eztabaida hauek gako izango direlakoan, erabakitzeko eskubidearen kontzeptualizazioak zer bide hartzen duen ikusi beharko da.

6. Erreferentziak

- Barceló i Serramalera, Mercè et al. 2015. El derecho a decidir. Teoría práctica de un nuevo derecho. Barcelona: Atelier Libros Jurídicos.
- Bengoetxea, Joxerramon; Goikoetxea, Jule, Zubiaga, Mario (Ed.). 2015. Naciones y Estados en el Siglo XXI: Democracia y Derecho a Decidir. RIEV Cuadernos 11.
- Beran, Harry. 1984. A Liberal Theory of Secession. *Political Studies* 32: 21-31.
- Brownlie, Ian. 1970. An Essay in the History of the Principle of Self-Determination. In: C. H. Alexandrowicz (ed.), *Studies in the History of the Law of Nations*, Springer.
- Cassese, Antonio. 1995. Self-Determination of Peoples. A Legal Reappraisal. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ezeizabarrena, Xabier. 2017. Derecho de libre determinación y derecho a decidir: nueva soberanía y Derechos Humanos en el siglo XXI. *Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*, 90.
- Gauthier, David. 1994. Breaking Up: An Essay on Secession, *Canadian Journal of Philosophy* 24-3: 357-371.
- López-Jacoiste Díaz, Eugenia. 2019. El derecho de autodeterminación según el Derecho internacional y la reivindicación de Cataluña. *Anuario español de Derecho Internacional* 35: 149-178.
- López, Jaume 2013. Presentació. In *Monogràfic sobre el dret a decidir. Àmbits de Política i Societat*, agosto de 2014.
- López, Jaume 2011 “Del dret a l’autodeterminació al dret a decidir: un possible canvi de paradigma en la reivindicació dels drets de les nacions sense estat”. *Quaderns de recerca UNESCOCAT*, 4. Alea, 2011ko azaroa.
- Nikolas, Zelai et al. 2016. Erabakitzeko eskubidea: erabakiaren aroa kudeatzeko tresna. *Jakin* 214, maiatza-ekaina 2016.
- Philpott, Daniel. 1995. In defense of self-determination. *Ethics: University of Chicago* 105 (January 1995): 352-385.
- Requejo, Ferrán. 2002. Democracia y pluralismo nacional. In *Democracia y pluralismo nacional*, Requejo, Ferrán, 157-168, Barcelona: Ariel Ciencia Política.
- Ruiz Vieytes, Eduardo J. 2015. Regulando el derecho a decidir: una propuesta, In: Bengoetxea, Joxerramon et al. (ed.) 2015. RIEV Cuadernos.
- Urrutia, Iñigo; Iñarritu, Jon; Nikolas, Zelai. 2012. Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze-juridiko-politikoa. In *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak*, Zubiaga, Mario, 55-88, Bilbo: Ipar Hegoa Fundazioa.
- Vilaregut, Ricard. 2011. Memòria i emergència en l'independentisme català. El cas de las Plataformas pel Dret de Decidir. Tesi doctorala, UAB.

Zubiaga, Mario 2014. La decisión democrática como fundamento del derecho a decidir. Informe:

Comisión de estudio del derecho a decidir del Parlament de Catalunya.
https://www.academia.edu/8397755/Informe_Comisi%C3%B3n_de_estudio_del_derecho_a_decidir_del_Parlament_de_Catalu%C3%B1a Accessed 15/10/2020.

Zubiaga, Mario. 2017. Sovereignty and contention: the evolution of Basque nationalism in Spain. Sovereignty Revisited: the Basque case. 64 - 85. Routledge (Francis & Taylor Group)

7. Eskerrak eta oharrak

Aurkezten den ikerketa tesi-proiektuaren parte da, Eusko Jaurlaritzak finantzatua. Era berean, eskertza berezia tesi zuzendari diren Julen Zabalo eta Iker Iraolarentzat ikerketan gidari ezinbesteko ari baitira.